



JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN BHI REN ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA-ARAUDIA

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Jose Miguel de Barandiaran BHIren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. Jose Miguel de Barandiaran BHI ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, eta Lanbide Heziketa. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.
2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Jose Miguel de Barandiaran BHIk ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.
3. Jose Miguel de Barandiaran BHIk bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
4. Jose Miguel de Barandiaran BHIk, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

I. TITULUA. JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN BHIko ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte-organoak

1. Jose Miguel de Barandiaran BHIk Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.



- a) Taldekoak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritzako taldea.
 - b) b) Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.
2. Ikasturte bakoitzean ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera eta ikasturteko Antolakuntza Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz, Jose Miguel de Barandiaran BHIIn, arestian aipatutakoez gain, lagun bakarreko beste aginte-organo batzuk egon daitezke. Lagun bakarreko organo horiek Antolakuntza Ebazpenean zehazten diren eskumenak eta funtzioak izango dituzte, baita aurreko paragrafoan aipatu ditugun organoek eskuordetzen dizkietenak ere. Ikasturte honetan, beraz, lagun bakarreko organo hauek egongo dira:
- a) Zuzendariordea eta idazkariordea.
 - b) Ikasketaburu-albokoa.

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza

1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek Jose Miguel de Barandiaran BHIren kudeaketan parte har dezakete.
2. Badira Jose Miguel de Barandiaran BHIren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk. Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoari jarraiki, gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoek mintzagai dugun ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute.
3. Jose Miguel de Barandiaran BHI ikastetxeko ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak Jose Miguel de Barandiaran BHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun bi organo horiek, klaustroaren, Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen, didaktika-departamentuaren eta orientazio-departamentuen zuzendaritzapean egongo dira.



5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak

1. Ikastetxeko aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoez, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.
2. Horrez gain, aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.
3. Mintzagai ditugun organoez, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN BHiko OOG

6. artikulua. Jose Miguel de Barandiaran BHiko OOGren ezaugarriak eta osaera

1. Jose Miguel de Barandiaran BHiko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan.
2. OOGren eskumenak. Jose Miguel de Barandiaran BHiko OOGk EEPLko 31. artikuluan aitor zaizkion eskuduntzak ditu.
3. Jose Miguel de Barandiaran BHiko OOG ondoko hauek osatuko dute: (EEPL 32.2)
 - a) Zuzendaria, OOGko buru izango dena.
 - b) Ikasketaburua.
 - c) Klaustroak aukeratuko dituen hamabi irakasle.



- d) Ikasleen gurasoen zortzi ordezkari. Legez sortu den guraso-elkarte garrantzitsuenak ordezkari horietako bat aukeratuko du.
- e) Ikasleen hamar ordezkari.
- f) Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g) Udaleko ordezkari bat.
- h) Hezkuntza-Arreta Osagarriko Langileen ordezkaria.
- i) Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

8. artikulua. Presidente eta idazkaria aldatzea ¹

1. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzinasun handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.
2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

¹ Administrazio Jardunbidearen Legeko arauak beteko dira.



2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.
3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiak derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.
4. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean izan ezik. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.²
5. Atal bakoitzeko ordezkariak behartuta daude bakoitzari dagokion organoari OOGn gertatutakoari buruz informazioa ematera, eta egin nahi dituzten proposamenen berri ematera ere. Pertsona zehatzei buruzko gaiak direla eta OOGko partaideak konfidentzialtasuna gortzera behartuta daude.
6. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

7. OOGn ikasleen ordezkarietzat araudi espezifikoak

- a) Ikasleen ordezkariak bilera bat deitu beharko dute OOGren batzar bakoitza baino lehen eta gero, Zuzendaritzan oharra eman ostean. DBHn ikasleagoa kurtsoka, mailaka edo zikloka bilduko da, Ikasketa Burutzaren irizpidearen arabera, eta bileran jostaldian izango dira.
- b) Bileretara joate libre izango da ikasleago orokorarentzat, baina kurtsoko ordezkarietzat eta OOGko partaideentzat beharrezkoa izango da.
- c) OOGko ikasleen ordezkariak deialdia publikoa egingo dute kurtsoko ordezkarien bidez.
- d) OOG aurreko asanbladan onartutako proposamenak OOGko batzarrera eramango dituzte ikasleen ordezkariak. Batzar hau eta geroko asanbladen helburua informatiboa izango da, gehien bat ikasleagoak aurkeztatutako proposamenei buruzko informazioari dagokionez.

² EEPLn ezarritako araua da.



- e) Asanbladan batutako ikaslegoak bere OOGko ordezkariak ezeztatze eskubidea du, ordezkari berriak hauteskunde ofizialetan boto kopuru handiena lortu zuten hurrengoak direla.
- f) Proposamenak gehiengo soilez onartuko dira.
- g) Proposamenak inoiz ezin izango dira ikastetxearen langile baten aurka joan.

10. artikulua. OOGko batzordeak

1. OOGn **batzorde iraunkorra** izango da. OOGk EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasle batek, ikasleen guraso batek eta ikasle batek –sektore bakoitzean aukeraturikoak. Organo horrek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.³

Batzorde iraunkorraren burua zuzendaria izango da eta hauek izango dira bere eginkizunak:

- a) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa eta urteko plana egitea OOGk onetsi ditzan.
- b) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, OOGk eztabaida dezan.
- c) OOGren batzarren gai zerrenda prestatzea eta gaiak eztabaidatzeko beharrezko dokumentazioa izatea.
- d) Premiako kasuetan OOG ordezkatzeko hartutako erabakien berri emanez.
- e) Zuzendaritza taldearen organo aholku-emailea izatea erabakiak hartu aurretik eskola elkartearen iritzia –garrantzitsua delako- jakin nahi den gaietan, nahiz eta berari dagokion eskumena izan.
- f) OOGk eskatzen dizkion eginkizunak eta zereginak betetzea.

2. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek –artikulu honetako lehen hiru paragrafoetan zehaztu direnak

³ EEPLk eskaintzen dituen aukeretako bat da. Antzaz, guztietan eraginkorra da. Legeak ezarri du proportziozko osaera. Boto haztatuaren sistemaren bidez, batzordea osatzen duten gurasoen, ikasleen eta irakasleen botoek OOGko osoko bilkuran duten pisu berbera izango dute. Kopuru minimoa proposatu da: guraso bat, ikasle bat edo irakasle bat. Nolanahi ere, argi dago ordezkari horiek baino gehiagok osa dezaketela mintzagai dugun organoa.

barne- azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumenekoak diren gaiei buruz. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertu dira. Arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta batzorde iraunkorra nahiz bizikidetzeta-batzordearen moduan osaturik egon, hau da, OOGko osaerarekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.

2. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa, Jose Miguel de Barandiaran BHIko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.
2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. Jose Miguel de Barandiaran BHIko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.
3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, antzintasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat. Idazkariak hartutako erabakiei buruzko akta idatziko du.
2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.
3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko

aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustroaren funtzioak zehaztu dira.

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. Pertsona bakarreko aginte-organismoek Jose Miguel de Barandiaran BHIko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiak modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu baita OOGk edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituenak ere.
3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.⁴
4. Jose Miguel de Barandiaran BHIIn, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea: Zuzendaria, Zuzendariordea, Ikasketaburua, Ikasketaburu albokoa, Idazkaria eta idazkariordea.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

⁴ Legez, zuzendaritza taldea eragile hauekin osa daiteke: koordinatzaileekin, premia arduradunekin, kalitate-arduradunekin, EGA/AKA arduradunekin, eta abar.

1. Jose Miguel de Barandiaran BHiko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.
2. Zuzendariak EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu.⁵

16. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu.⁶ Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu.⁷ Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioko eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

18. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organok izendatzea eta kargua uztea

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organok izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

19. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.

⁵ VII. eranskinean jaso dira.

⁶ VIII. eranskina

⁷ VIII. eranskina

4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikuluko honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

20. artikulua. Jose Miguel de Barandiaran BHIko koordinazio-organoak

Jose Miguel de Barandiaran BHIko irakaskuntzaren koordinazio-organo hauek egongo dira:

- a. Orientabide-departamentua.
- b. Didaktika-departamentuak. Urtero eratzen dira, ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak emandako ebazpenaren arabera.
- c. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.
- d. Tutoreak.
- e. Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.

I. ATALA. ORIENTABIDE-DEPARTAMENTUA ⁸

21. artikulua. Orientabide-departamentuaren osaera

Orientabide-departamentua ondoko hauek osatuko dute:

- a. Psikologia eta pedagogia espezialitateko irakasleak.
- b. Curriculum-aniztasuneko taldeen, eskolan esku hartzeko taldeen eta esku-hartze osagarriko taldeen arduradun diren irakasleak.
- c. Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako maisu-maistrak.
- d. Ariketak egiten ikasteko gela arduradun diren irakasleak.

22. artikulua. Orientabide-departamentuaren funtzioak

⁸ EEPLn jaso ez bada ere, Orientabide-departamentuak eta departamentuko buruak eskumen zehatz batzuk izango dituzte, betiere, baldintza jakin batzuk betez gero. Eskumen horiek ikasturteko antolamendu-gutunean aitortu ohi zaizkie. Aurtengo eskumenak IX. eranskinean ageri dira. Orientabide-departamentua Bigarren Hezkuntzan eratu ohi da. Horrek ez du esan nahi Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Orientabide-departamenturik egon ezin denik. Bigarren kasu horretan, aholkularia egon beharko litzateke departamentuan. Orientabide-departamentua ikastetxearen mende dago eta ez du izango Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako xedapenetan –indarrean dauden horietan bederen– aurreikusi den aintzatespen ekonomiko eta administratiborik.

1. Orientabide-departamentuak indarrean dauden legeek agintzen dizkioten funtzioak hartuko ditu bere gain. Hezkuntzako Sailburuordeak ikasturtero ematen du ikasturtearen antolamenduari buruzko ebazpena. Orientabide-departamentuak, horrenbestez, ebazpen horretan jaso diren funtzioak izango ditu. Mintzagai dugun departamentuko kideek, Departamentuko funtzio komunez gain, Hezkuntzako Sailburuaren ebazpenaren bidez ezarri zaizkien banakako funtzioak bete beharko dituzte.
2. Funtzio horiek, aldatzen ez badira, VIII. eranskinean ageri direnak dira, hots, 2008/2009 ikasturteari dagokion ebazpenean ageri direnak.

23. artikulua. Orientabide-departamentuko burua izendatzea

1. Zuzendariak urtero izendatuko du Orientabide-departamentuko burua. Horretarako, psikologian eta pedagogian espezializatutako irakasleen artetik bat hautatuko du. Aukeraketa egiteko, Departamentuko kideen iritzia kontuan hartuko du eta kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudun izanda ere.
3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Orientabide-departamentuko buruak, azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du.

II. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK

24. artikulua. Didaktika-departamentuen ezaugarriak eta osaera

1. Didaktika-departamentuak arloen, irakasgaien eta moduluen irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Buruaren zuzendaritzapean, departamentuek arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte, baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere. Departamentuko kide guztiak eragin zuzena dute taldeen egitekoaren nahiz taldeak gauzatzen duen lanaren gain.
2. Irakasle guztiak astean ordubetez bildu beharko dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Aipatu berri duguna bazter utzi gabe, departamentuko kide guztiak bildu

beharko dira departamentu-buruak egoki baderitzo edo departamentuko kideen heren batek hala eskatzen badu.

3. Irakasleek zer didaktika-departamentutan egon behar duten zehazteko, kontuan hartuko da asteko beren ordutegiko ordurik gehien zer alor, irakasgai edo moduluri ematen igarotzen duten. Irakasle batek bi didaktika-departamenturi edo gehiagori dagozkion ikasgaien eskolak ematen baditu, ordu gehiago ematen ditueneko ikasgaiaren departamentura atxikiko da; hala ere, berak irakasten dituen gainerako ikasgaien departamentuen bileretara bertaratu ahal izango da, baita bertan egiten diren lanetan eta hartzen diren erabakietan parte hartu ere.

25. artikulua. Didaktika-departamentuen eta departamentu-buruen funtzioak eta eskumenak

Didaktika-departamentuak eta bere buruek urtero izango dituzte eginkizun hauek:

1. Ikastetxeko ikasketa-proiektua aldatzeko edo/eta garatzeko proposamenak egitea.
2. Irakasgai bakoitzeko programa garatzea, ikasketa-proiektuarekin bat etorriz, didaktika-baliabide eta/edo ebaluazio tresna egokiak prestatzea.

Eskolako testuinguruko edo arlo bateko arazo orokorrak direla eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan sortzen diren zailtasunak aztertzea, hezkuntza berrikuntzaren prestakuntzaren prozesuen bidez hobetzeko.

Urteko planean barne hartutako proiektuak egiteko irakaslanen programan ikasturtean zehar jardungo duten departamentuak zehaztuko dira eta beraien lan plana zehaztuko da. Gauzatuko den proiektuan barne dauden irakasleak departamentuetara atxikiko dira, baina ezin izango dute departamentu baten baino gehiagotan parte hartu.

26. artikulua. Jose Miguel de Barandiaran BHiko didaktika-departamentuen kopurua eta izena

Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak eman duen ebazpenean ezarri bezala, Jose Miguel de Barandiaran BHIn didaktika-departamentu hauek eratu dira:

Biologia, Euskara, Filosofia, Fisika eta Kimika, Espainiar Hizkuntza eta Literatura, Gorputz Heziketa, Historia, Hizkuntza Atzerritarrak, Marrazketa, Matematika, Latina, Osasuna, FOL, Musika eta Teknologia.

27. artikulua. Didaktika-departamentuetako buruak izendatzea

1. Zuzendariak didaktika-departamentuetako buruak hautatuko ditu urtero ikastetxeko irakasleen artetik. Buruak hautatu aurretik, zuzendariak entzunaldia egin beharko die. Zuzendariak, halaber, kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu beti.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudunak badira ere.
3. Departamentu bakoitzak buru bat izango du, eta honako eginkizunak izango ditu:
 - a) Departamentuaren jarduera oro har bideratu eta koordinatzea.
 - b) Batzarrak antolatu, prestatu eta bideratzea.
 - c) Edukiei eta gutxieneko eskakizun-mailari dagokienez programa betetzen dela nahikotasun proba amankomuna ziurtatzea modu ohikoan gainditu ez dutenentzat.
 - d) Departamentuko lanak bere kideen artean banatzea.
 - e) Departamentuak egindako ez ohiko frogen kalifikazioak ikuskatzea.
 - f) Departamentuan antzematen duen edozein arazo ikasketaburuari jakinaraztea.
 - g) Egiten diren batzarretako aktak idatzita daudela bermatzea.

III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA 9

28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

Jose Miguel de Barandiaran BHIⁿ Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Zuzendaria, ikasketaburua eta departamentu-buruek osatuko dute Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, ikastetxeko zuzendaria buru izango duelarik. Departamentu-bururik gazteena izango da mintzagai dugun Batzordeko idazkari.

29. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak¹⁰

⁹ Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan LOGSE ezartzeko Arauak aplikatuzetik Koordinazio Pedagogikorako Batzordea sortu zen. Batzorde horrek eskumen tekniko-pedagogikoak ditu. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea Bigarren Hezkuntzan ere egon beharko litzateke, departamentuetako buruen batzordeak zituen funtzio berberak baititu. Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak eskumen teknikoak baino ez ditu. Horregatik klustroaren baitako batzorde izango da, ez OOGrena.

¹⁰ Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak hainbat testu legeletan jaso dira.

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.
2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik:
 - a) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua koordinatzea. Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
 - b) Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutore-ekintzarako planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertze irizpide orokorrak finkatzea.
 - c) Formakuntza, osagarri eta eskolaz kanpoko jardueri buruz dauden proposamenak irakasleen aldetik aurkeztea jarduera programa lantzeko.
 - d) Aginte- organoek emandako beste funtzio batzuk.
3. Batzorde pedagogikoan hartutako erabakiek eraginkorrak izan beharko dira ikastetxeko aginte- organoek erabakitakoa lehenbailehen praktikan jartzeko. Partaideek horrela uste dutenean, organo horiei proposamenak ahal izango dizkiote aurkeztu beraiei buruz eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izateko.
4. Batzorde Pedagogikoa Ikasketaburuak edo partaideen herenak eskatuz gero bilduko da.

IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

30. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. Jose Miguel de Barandiaran BHlko ikasle talde bakoitzak bere tutorea izango du¹¹.

¹¹ Curriculum desberdinetako taldeetan, hezkuntzan espezifikoki esku hartzeko proiektuetan eta esku-hartze osagarrietan bi tutore egon daitezke.

3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketaburuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorritz.
4. Orientabide Departamentuko buruak, Ikasketaburuarekin koordinatuz, tutoreen lana koordinatuko du eta, aldiari aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

31. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.¹²

32. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.
2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Ikasketaburuak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.

33. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

- a. Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b. Taldeko bizikidetzagiroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c. Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurriak egokienak ezartzea.
- d. Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.

¹² XI. eranskinean, ikasturte honetan tutoreei esleitu zaizkien eskumenak eta funtzioak ageri dira.

- e. Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK¹³

34. artikulua. Partaidetza-organo bereziak

OOGn hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarleen eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

35. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo bereziak

Jose Miguel de Barandiaran BHIIn badira ikasleek parte hartzeko talde bakoitzeko ordezkariak.

36. artikulua. Taldeko ordezkariak

1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen Ordezkarien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkariaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari.
2. Ikasturteko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikulua honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz OOGn ikasleen ordezkari direnekin elkarlanean.
3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkari hautetsietan zaharrena izango da eta ordezkariorde hurrengoa.
4. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde zuzenetik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkaria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onespena izan behar du.

¹³ EEPLn nahiz Eskubideen eta Betebeharren Dekretuan zehaztutakoa betez.

Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.

5. Ezin izango dira ordezkariak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

37. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak

Hauetako dira taldeko ordezkarien funtzioak:

- a. Ordezkarien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b. Aginte-organoei eta Koordinazio Didaktikorako Organoei ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c. Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d. Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e. Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f. Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g. Ikastetxeko aginte-organoei, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

38. artikulua. Ordezkarien Batzordearen eraketa eta jardura-araudia

1. Irakasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen Ordezkarien Batzordea du izena.
2. Jose Miguel de Barandiaran ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako irakasleek libreaki hautatu dituzten ordezkariak eta, bestetik, ikastetxeko OOGn ikasleen ordezkariak aritzen direnak.
3. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta arau horiek baztertu dira legez

ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.

4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.
5. Ordezkarien Batzordeak eskubidea du biltzeko ikaslegoari, ikastetxeari edo beste ikastetxe batzuei dagozkien gaiak eztabaidatzeko helburuarekin.
6. Ordezkarien batzordearen batzar bat deitzeko organo honen herena behar da. Horretarako Zuzendaritzan aipatutako herenak sinatutako idatzi bat aurkeztuko da aurretiaz batzarraren gaiordena adieraziz. Idatziaren kopia bat emango zaio Ordezkarien Batzordeko partaide bakoitzari.
7. Ordezkarien asanblada osatzeko eskatuko den quoruma gutxienez %50koa izango da, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.
8. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.
9. Batzordeak inolako informazio edo proposamen geletatik zabaldu nahi badu Zuzendaritzarekin adostu beharko ditu modu eta momentu egokienak hori egiteko. Halere, irizpide orokorra informazio emate eta eztabaida guztiak atsedendaldietan edo klase aldaketetan egingo direla izan daiteke.
10. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Eskola kontseiluaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio-mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

39. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak

Hauek dira Ordezkarien Batzordearen funtzioak:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeakoak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.



- b) OOGko ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
- c) OOGko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiei buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.
- d) OOGrako txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta ere.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
- f) Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.
- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa ematea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.
- i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki.

II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK

40. artikulua. Gurasoen Batzarra¹⁴

1. Jose Miguel de Barandiaran BHIko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.
2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organok Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.
3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

¹⁴ EEPLk sortutako organoa da.

- a) Egokitzen jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jardura osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.
- b) Zuzendaritza taldearekin eta klustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte hartzen.
- d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
- e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

41. artikulua. Ikasleen guraso-elkarteak eta ikasle-elkarteak

1. Jose Miguel de Barandiaran BHIk, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle-elkarteen egoitza izango da eta ikasle-elkartei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.
2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkartei.
3. OOGn ordezkari aritzeko, guraso-elkarterik garrantzitsueneko kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.
4. Ikastetxeko aginte-organoei ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

42. artikulua. Elkarte legalki eratu bidez parte hartzea

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek nahiz ikasle-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- d) OOGn landu diren gaiet buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- e) OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
- g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
- h) Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketen ale bat jasotzea.
- j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuari eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

43. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

Jose Miguel de Barandiaran BHIaren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta,

bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

44. artikulua. Bizikidetz-plana

Jose Miguel de Barandiaran BHIk bizikidetz-plana idatzita du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetz-planaren helburu nagusia bizikidetzan gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jarduera eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

45. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.¹⁵ Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

46. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte.¹⁶ Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

47. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

Jose Miguel de Barandiaran BHIko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

¹⁵ XII. eranskinean 201/2008 Dekretua ageri da oso-osorik.

¹⁶ Ikusi aurreko oharra

48. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketa-burua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.
2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen.
3. Ikasketa-buruak zenbait irakasle bidez ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

49. artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, Jose Miguel de Barandiaran BHiko aginte-organismoek, tutoreek eta irakasle guztiak babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio OOGri grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. OOGk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.
2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

3. Eskola inklusiboaren eta aniztasunari arreta ematearen hezkuntza-esparru pedagogiko berriaren testuinguruan, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bidalitako gomendioak jarraituz, buruan zapia erabiltzeari buruz hurrengo arauak aplikatuko dira:
4. Ez galarazi buruan zapia daramaten nesken eskolatzea hezkuntza inklusiboaren eta aniztasunari arreta ematearen planteamenduan oinarrituta, 236/2015 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, xedatu bezala. Arau hau denbora guztian aurpegia agirian uzten duen zapientzat bakarrik aplikatuko da, eta ez du hartuko kontuan ondorioz etor daitekeen beste inolako eskakizunik (ad: Gorputz hezkuntzako klaseetatik kanpo geratzea).
5. Hezkuntzaren arloko konpromisoak sustatu familien edo legezko tutoreen eta ikastetxeen artean. Konpromiso horietan jasoko dira familiek, irakasleek eta ikasleek zer konpromiso hartzen dituzten curriculum-dekretuetan hezkuntza-etapa bakoitzerako ezarritako helburuak eta oinarrizko konpetentziak lortzeko, eta, horrela, ikasleek bizialdi osorako oinarri sendoak lor ditzaten, gai izan daitezen beren bizitzak zentzuz gidatzeko eta beren helburuak hautatzeko, beren erabakien ardura har dezaten, eta gizartean aktiboki, kritikoki eta erantzukizunez parte har dezaten.

50. artikulua. Biltzeko eskubidea

Jose Miguel de Barandiaran BHIko aginte-organismoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organismoek paragrafo hauetan zehazten dena hartuko dute kontuan:

- a) Taldeak gelan bil daitezke ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, aldeztu aurretik tutoreari jakinaraziz. Hala badagokio, tutorea bileran izango da. Horrez gain, hilean behin eskola-ordutan bil daitezke, ordubetez gehienez ere. Horretarako, tutoreari gai-zerrenda jakinarazi behar diote aldeztu aurretik. Bilera horietan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ikasleen ordezkaria izango da.
- b) Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera. Horretarako, Araudi honetako 38.2 artikuluan aipatzen den eta

funtzionamendurako arauak aurreikusten duten bileretarako araudiari jarraituko zaio.

- c) Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkatuei kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak Ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.
- d) Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri emango zaie ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezko izango.
- e) Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Hasiera batean eskola-ordutegitik kanpo egingo da. Horretarako, ikasketaburuak eskolen ordutegia alda dezake, eskolen iraupena murriztu gabe.
- f) Hala ere, OOG osatzen duten hiru sektoreek –, gurasoek eta irakasleek, gehiengo erlatiboaren bidez onesten badute, ikasketaburuak eskolen iraupena murriztuko du bilerak ordubete iraun dezan. Horretarako bileran aztertuko diren gai kopurua eta gaien izaera kontuan hartuko dira. Eskola-ordutegia murrizten bada, eta erabakia bileraren bezperan hartzen bada, eta irakasle guztiei jakinarazten bazaie murriztapena eskola guztien artean banatuko da. Aitzitik, erabakia bilera egingo den egunean bertan hartzen bada, bilera egiten den jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak bakarrik murriztuko dira.

51. A artikulua. DBH, Batxilergoko eta Zikloetako taldeetan ez-etortzeei buruzko arauak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan agertzen diren 23. artikulua (etortzearen beharra) eta 38. artikulua (ebaluaketa eskubidea galtzea ez-etortze jarraiak direla eta) Jose Migel de Barandiaran BHIko OOGk zera ezartzen du:
2. Ez-etortzeak idatziz justifikatu behar dira ikaslea klasera itzulita eta gero bost egun lektiboko epe baten barruan, posible den kasu guztietan medikuaren agiri baten bidez.

Epe hau bukatu eta gero ez da justifikanterik onartuko. Neurri hau bai DBHn, bai Batxilergoan, bai Zikloetan aplikatuko da.

3. Azterketa batera ez-etortzea medikuaren agiriaren bidez bakarrik justifikatuko da, eta hau aurkeztu eta gero bakarrik ikasleak ahal izango du azterketa beste egun batean egitea eskatu.
4. Ikasgai batean justifikatu gabeko ez-etortze kopurua ikasturteko ordu kopurua osoaren %20a iristen denean, ikasleak ikasgai horretako ebaluazio jarraiaren eskubidea galduko du, eta ezohiko deialdian bakarrik ahal izango da aurkeztu. Ikaslea ordu kopuruaren %10a heltzen denean ohar idatzi bat emango zaio nola %20a heltzen denean ebaluaketa jarraiaren eskubidea galduko duen gogorarazteko. Ohar hau etxean gurasoek edo tutoreek sinatuta itzuli beharko zaio irakasleari bost egun lektiboko epe baten barruan.
5. Zikloetan ez-etortze guztiak – zein ez justifikatutakoak- metatzen doaz ikasturtean zehar moduloaren ordu kopuru osoaren %20a heldu arte. Behin hona helduz gero edozein ebaluaketatan ikasleak ohiko eta ez ohiko deialdietara etortzeko bakarrik izango du eskubidea. Lehenengo hiruhilabetean %20a helduz gero, ebaluaketa gainditu gabe geratuko da, eta bereskuratzeko klaseetara joatea derrigorrezkoa izango da. Azterketa bat ez da inoiz egunez aldatuko, ezta medikuaren agiria aurkeztuta ere.
6. LPK moduloa aurrera eramatekoan ez-etortzeak eta puntualtasun faltak ikaslea programatik kanpora ahal dute atera. Aste bete bat baino gehiago irauten duten justifikatutako ez-etortzeak errekuiperatu egin behar dira geroago, eta justifikatu gabeko hiru ez-etortzeen ondorioa – aurretik ohartuz-praktiken etendura izango da.
7. Ikasle absentista batek 16 urte beteta baditu, adin honekin ez denez derrigorrezkoa eskolara etortzea, bere ez-etortzeak jarrera desegokitzat hartuko dira (justifikatuko gabeko 6 ordu eta gero parte bat egingo zaio) eta EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan azaltzen den protokoloa aplikatuko zaio.

51 B artikulua: Ez-etortze kolektiboentzat araudia

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea

ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezingo dira zuzendu, betiere, AJA honetako artikulua honetan aipatuko duguna betetzen bada.

Ezarritako baldintzak betetzen ez dituen eskoletara ez joatea jokabide desegokitzat joko da, eta bertan parte hartu duten ikasle guztiei dagokion neurri zuzentzailea aplikatuko zaie.

1. Eskoletara ez agertzeko proposamena ikastetxeko Ordezkarien Batzordeak hartuko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo legez aitortzen diren elkartetako, federazioetako edo konfederazioetako ordezkarien %5ek hala eskatzen badu.
2. Ordezkarien gehiengo soila beharrezkoa izango da greba deialdi bat taldeka eztabaidatua izan dadin.
3. Greba proposamena, behar den bezala arrazoituta, idatziz eman beharko da Zuzendaritzan greba eguna baino bi lan egun aurretik gutxienez. Deialdian greba nork deitzen duen, data, ordua eta programatutako jarduerak adierazi beharko dira. Salbuespen bezala proposamena egun bat arinago ahal izango da aurkeztu premiaren arrazoiak modu bidezkoan justifikatuz.
4. Grebari dagokion informazioa ikasleei taldez talde emango zaie 38.9 artikuluan esaten dena beti kontuan izanda. Greba proposamena idatziz eraman beharko da eta informazioa berdina izan beharko da talde guztietan.
5. Talde bakoitzean greba onartu edo ezeztatu egingo da boto sekretu eta idatzizkoa emanaz, eta gehiengo soilez onartuko da bozkatu duten ikasle kopuru osoa kontutan izanez.
6. Talde bakoitzeko bozketari buruz akta bat idatziko da eta bertan zera adierazi beharko da: ikasle kopuru osoa, bozketaren momentuan bertan daudenak, baiezko botoak, ezezkoak, abstentzioak (edo zuriz daudenak) eta baliogabeko botoak. Bozketarekin zerikusirik ez duen mezua duten botoak hartuko dira baliogabetzat. Behin bozketa bukatu eta gero akta guztiak Zuzendaritzara eramango dira.
7. Greba egunetan azterketak errespetatuko dira.
8. Klasera ez-etortzeak, goian ezarritakoa betez gero, ez dira faltatzat hartuko, baina gurasoei edo tutoreei oharra bidaliko zaie ikasle adingabeen kasuan. Greba batek ez

baditu aipatutako arauak betetzen ez-etortzeak justifikatu gabekotzat hartuko dira eta horrela agertuko dira emaitzen boletinean.

9. Edozein kasutan, ikastetxeak ziurtatu beharko du greba ez duten egiten ikasleen klasera etortzeko eskubidea eta hauek bidezko atentzioa jasoko dute dagokizkien irakasleen aldetik ikasgaiekin lotuta dauden jarduerak aurrera eramanez.
10. Ikasleek greba egiteak ez du inola esan nahi irakasleek ez-etortzearen egunari dagokion curriculum atalaren azalpena errepikatu behar dutenik.
11. DBH 3. eta 4. mailako ikasleak greba deialdi ofizial batera ahal izango dira gehitu gurasoen edo tutore legalen baimen idatzia aurkeztuz gero. DBH 1. eta 2. mailako ikasleen kasuan, legeak dioenez, ez-etortze kolektiboa ez da egongo inoiz justifikatuta.

52. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Apirilaren 19ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:
 - a) Zuzendariak – edo, haren lekuan, ikasketaburuak– arautuko du eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da. Goiko eraikinean: ikasleak: sarrerako kortxoan, irakasleak: irakasle gela kortxoan; Beheko eraikinean: irakasleak: irakasle gela ondoko kortxoan; ikasleak: sarrerako kortxoan ezkerretara)
 - b) Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.
 - c) Gelen barruan eskolako jarduerari buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.
2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.
3. Arau horiek hezkuntza-komunitate osoari aplikatuko zaizkio.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

53. artikulua. Printzipio orokorra



1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.
2. Betebeharrak ez betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

54. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

55. artikulua. Jokabide desagokiak¹⁷

1. Jokabide desagokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.
2. Jose Miguel de Barandiaran BHI, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desagokiak.
3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauarekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

56. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak¹⁸

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

¹⁷ XII. eranskina

¹⁸ XII. eranskina

2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

57. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak¹⁹

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

58. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluaren aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

59. artikulua. JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN BHI-KO BARNE ARAUDIA

Gaur egun ikastetxea bi eraikin desberdinetan dago kokatuta, bat DBHarentzat eta bestea Batxilergo eta Zikloentzat. Eraikin bakoitzean egoerak desberdinak direla eta, araudi komun bat dago bientzat baina arau espezifiko batzuk bakoitzarentzat ere, jarraian adierazten denez:

59 A artikulua: ERAIKIN BIENTZAKO ARAUDI AMANKOMUN

1. Sarrera ordua 8.15tan izango da eta bost minutuko malgutasun tarte bat egongo da klaseak hasteko. 8.20 baino beranduago heltzen denak justifikazio idatzia ekarri beharko du, eta berandu heltzeak errepikatzen badira familiari emango zaio honen berri. Klase ordutegia ez betetzeak klasea moztea suposatzen du, bai berandu heltzeagatik bai goiz irtetzeagatik. Ebaluaketa berdinean hiru aldiz honelakorik egiten duen ikasleari idatzitako

¹⁹ XII. eranskina

ohar bat emango zaio jokabide desegokiagatik. Ikasleren batek ebaluaketa berean honelako hiru ohar jasoz gero, abenduko zaren 201/2008 Dekretuan elkarbizitzaren aurkako jokabidearen kasuan adierazten den protokoloa aplikatuko zaio. 2. Arau orokor bezala, inor ez da joango komunera klase aldatetetan. Salbuespenak karguan dagoen irakasleak ezarriko ditu, eta edozein kasutan inoiz ez da ikasle bat baino gehiago gelatik irtengo.

2. Atsedendietan ikaslegoa beraienez eraturako espazioetan egon daiteke, hots, patioak, liburutegia, galeria, ikasleen gela. Ikasgelak itxita egongo dira eta ikasleren batek justifikatutako arrazoi batengandik gela batera sartu beharra badu zaintzako irakaslearekin joan beharko da.
3. Klaseak bukatu eta gero ikasleak ordenan irten beharko dira eta ezin izango dute inolako kasuan gela barruan geratu irakasle batekin izan ezik. Klase orduetan ezin da egon ikaslerik pasilloetan ezta ere.
4. Gelak ordenatuta geratu beharko dira: mahaiak eta aulkiak ilaran, liburuak eta koadernoak batuta eta paperak edo beste zaborrak zakarrontzietan. Bai gela, bai espazio amankomunak modu zuzenean erabili beharko dira.
5. Hutsik geratzen diren geletan baliozko gauzarik edo dirurik inoiz ez uztea aholkatzen da badaezpadan.
6. Klase orduetan ikastetxea uzteko derrigorrezkoa izango da justifikazio bat aurkeztea.
7. Debekatuta dago eskola eremu barruan erretzea edo edozelako droga edo edari alkoholiko kontsumitzea.
8. Bateratze obrak amaitu arte:

- **Barandiaran Behekoan:**

Barandiaran Beheko eraikinean mugikorra erabiltzea debekatuta dago bai klase orduetan bai patio orduan: geletan, korridoreetan, jantokian, galerian, patioan... irakasleak jardueraren bat aurrera eramateko beharrezkoa dela adierazten ez badu. Ezin da inolako aparatuerik begi bistan eduki, motxilan gordeta eta itzalita izango dute mugikorra. Arau hori betetzen ez bada, ikasleari mugikorra kendu egingo zaio eta ikasketaburutzan gordeko da hiru egun lektibotan, txartela barruan duela. Gainera, aparatu bat klasean baimenik gabe erabiltzea jokabide desegokitzat hartuko da, eta horri dagokion parte jasoko du ikasleak, gurasoek edo tutoreek sinatu beharko

dutena telefonoa berreskuratzen. Parte ematearekin batera, irakasleak etxera deituko du. Ikasleek sakeleko telefonoa jantoki orduan erabil dezakete baina eraikinetik kanpo soilik.

- **Barandiaran Goikoan:**

Barandiaran Goiko eraikinean, ezin da inolako aparatuerik begi bistan eduki, ez geletan ezta korridoreetan ere. Motxilan gordeta eta itzalita izan beharko dute, irakasleak jardueraren bat aurrera eramateko beharrezkoa dela adierazten ez bada. Arau hori betetzen ez bada, ikasleari mugikorra kendu egingo zaio eta ikasketa-burutzan gordeko da 3 egun lektibotan, txartela barruan duela. Gainera, aparatua bat klasean baimenik gabe erabiltzea jokabide desegokitzat hartuko da, eta horri dagokion partea ekarri beharko du ikasleak, gurasoek edo tutoreek sinatuta. Ikasleek erabil dezakete sakeleko telefonoa atsedendietan. Galerian mugikorraren erabilera baimenduta dago.

Zikloetan ez zaie mugikorra kenduko

1. Ikastetxearen martxa ona bermatzeko puntualtasuna derrigorrezkoa izango da bai ikaslegoarentzat bai irakaslegoarentzat, eta bai klase ordutegiaren hasieran zein klase aldaketetan.
2. Zaintzako irakasleek izango dute beraien zaintza orduan ikasleak dauden espazio guztien kargua, eta hori dela da bai gelak bai leku komunak eta espezifikoak (liburutegiak, galeriak, laborategiak, informatika, musika edo marrazketa gelak) zaindu beharko dituzte.
3. Irakaslea izango da gelatik irtetzen den azkena, eta atsedendia aurreko klaseetan edo gela hutsik geratuko denean (ad. ikasleak hautazko ikasgaiak dituztenean) atea giltzez itxiko du.
4. Irakasle batek aurretiaz faltako dela badaki idatziz utzi beharko du lana faltatuko den ordu bakoitzerako hori egiteko dauden inprimakietan, eta gainera bere burua apuntatu zaintza liburuan. Zaintzako irakasleek begiratuko dute ea irakasleren bat falta bada, eta horrela bada bere taldearen eta utzitako lanaren ardura hartuko dute. Irakasle bat ustekabean falta bada eta ez badu ezer idatziz utzi ikasleek egiteko, zaintzako irakasleak dagokion mintegira joango dira eta bertan eskatu dute materiala ordu hori modu egokian aprobetxatzeko.

Edozein kasutan, talde baten kargua hartu duen zaintzako irakasleak bete (behar bada) eta sinatu beharko du bere zaintza orduari dagokion inprimakia eta gero irakasle gelan horretarako dagoen kajoian utzi. Baita ere, falta izan den irakasleak kajo horretatik dagokizkion inprimaki guztiak jaso beharko ditu lehenbailehen.

5. Klaseren bat zaintzen ez dagoen zaintzako irakasleagoa erraz topatzeko lekuan egon beharko da ordu osoan, bai irakasle gelan (goiko eraikinean) bai solairu bietako tutoretzetan (beheko eraikinean).
6. Ikasle bat txarto sentitzen bada edo istripuren bat badu klase orduetan zaintzako irakasleek izango dute egoeraren erantzukizuna ezarrita dagoen protokoloa jarraituz.
7. Gela espezifiko bat erabiltzen duen irakaslea falta bada (gimnasioa, informatika, laborategia...) zaintzako irakasleak ikasleak gela arrunt batera eramango ditu falta den irakaslearekin kontrakoa ez badu adostu.
8. Dagokionean aplikatu daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako klaseak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larri edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauei aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordean, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira ernatzule subsidiarioak legeak aurreikusitakoaren arabera.

(40. Artikulua, 201/2008 Dekretua, abenduak 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa).

59 B artikulua – Batxilergo eta Zikloetako eraikinerako arau espezifikoak

1. Klase orduen tartetan ikasleak ezin izango dira zentrotik kanpora irten (ad, erretzera) denborarik ez galtzeko. Ezin izango dira ezta ere pasabideetan edo hall-ean geratu atsedendietan, zaintzako irakasleak arduradun direla ikasleak patiora edo ikasleen gelara ateratzeko.
2. Uneren baten derrigorrezkoa bada ikasleren bat gelatik kanporatzea ikasketaren burutzara bideratuko da. Disziplina parte bat beteko zaio bertan kanporaketaren arrazoia adieraziz eta kopia bat emango zaio bai tutoreari bai ikasketaburuari. Parte hau familiak edo

tutoreek sinatuta bueltatu beharko da eta itzuli beharko zaio idatzi zuen irakasleari. Irakasle honek berri emango dio ikasketaburuari parte sinatuta bueltatzen denean.

3. 1. orduan gela bereziren batera joan behar den ikasleagoa bertara joango da jarraian bere gelatik pasatu gabe. Irakasleren batek justifikatutako arraoi batengandik lehenengo gelatik pasatu beharra adierazten badu, berarekin dagoen irakasleak erabakiko du baimena eman ala ez horrela egiteko, baina beti kontutan izanez geletako giltzak ezin direla bakarrik dagoen ikasleen eskuetan geratu lapurketak eta kalteak saihesteko.
4. Zikloetako eta Batxilergoko ikasleek eskubidea izango dute liburutegi edo ikasle gelan ikasten egoteko, baina hori egiteko klaseren bat galdu behar badute falta hori ez justifikatutzat hartuko da eta ezin izango da justifikatu inola ere.

59 C artikulua: DBHko eraikinerako arau espezifikoak

1. Irakasle guztien ardura da, eta ez zaintzakoena bakarrik, ikaslerik ez egotea pasabideetan klase orduetan.
2. 2. Ikasleek ezin dituzte larrialdiko irteerak erabili (atzeko eskailarak) edifiziotik gora eta behera ibiltzeko ate hauek beti itxita egon behar bait dira.
3. Tutoretza gelak giltzez itxi behar dira utzik dauden orduetan.
4. Irakasleren bat txarto sentitzen denean eta baimena eskatzen badu etxera deitzeko, momentu horretan berarekin dagoen irakasleak baloratu beharko du dei hori egitea beharrezkoa bada. Baimena eman ez gero:
 - a) Egoera larria izanez gero (ad. Zauri larri bat) zaintzako irakasleei abisatu zaie eta ikaslea atezainen bulegora eramango da bertatik bere etxera edota medikuaro deitzeko.
 - b) Egoera larria ez bada zaintzako irakasle batek lagunduko du ikaslea atezainen bulegora bertatik etxera edota medikuari deitzeko.
5. Ikasle bat inoiz ez da irtengo ikastetxetik baimenik gabe klase orduetan.
6. Irtetzeko txirrina jotzerakoan hurrengo orduko zaintzako irakalseak jadanik 1. eta 2. solairuko pasabideetan egongo dira, eta ez bada irakaslerik falta beraien zaintza ordu osoa solairu bakoitzeko tutoretzetan emango dute, inoiz ez irakasle gelan.

7. Printzipioz, falta den irakaslea gela bereziren batekoa bada (musika, informatika, teknologia...) ikasleago gela horretan geratu behar da. Ikasleei aurretik ez bazaie faltaren berri eman gorputz hezkuntzako irakaslea falta dela eta jadanik polikiroldegian badaude, zaintzako irakalseek joan beharko dira beraien bila eta dagokien gelara ekarriko ditu.
8. Atsedendiko zaintzentzat arautegi berezia egongo da: irtetzeko txirrinak jotzen duenean zaintzako irakasle batek gelak hutsituko ditu, besste batek ikasleak patioara aterako ditu eta hirugarrenak galeriaren ardura izango du. Lehengoak gelak hutsitu bezain laster patioa joang da ere, eta honela beti egongo dira bi irakasle atsedendiko giro ona bermatzen eta inork ez duela patioan erretzen ziurtatzen.

Atsedendiairen lehengo hamar minutuetan nahi duten ikasleak ahal izango ditra liburutegira joan, eta behin denbora hau pasatu eta gero atea itxiko da. Geletako atea ere itxita geratuko dira eta ez dira irekiko inorentzat. Atsedendia aurreko azken klasea gelatik kanpo izan bada ikasleen beraien gauzak sarrerako apaletan utzi beharko dituzte.

Eguraldi ona dagoenean zaintzako irakalseek ahal dute erabaki inor ez geratzea galeria barruan atsedendian zehar.

59 D artikulua- erosketa eta gastu protokoloa

Mintegi buruek izango dute beraien departamentuko diruaren kontrola eramateko kurtso hasieran emandako kantitatea kontutan izanda. Baita ere, proiektuen arduradunek beraien gastuen kontrola eraman beharko dute kasu bakoitzean daukaten dirulaguntzaren arabera eta inoiz dagoena baino gehiago gastatu gabe.

Kontrol hau errazteko irakasle bakoitzak bere mintegi buruari eman beharko dio berri edozien gastu egiten duenean, eta ahal den neurrian erosketa guztiak Jose Migeul de Barandiaran BHlk kontu irekia duen dendetan egingo dira.

Gastu bakoitza justifikatzeko dagokion faktura aurkeztu beharko da, eta honetan gastua egiten duen pertsona edota departamentuaren izena agertu beharko da. Orokorrean ordainketa guztiak transferentziaren bidez egingo dira, beraz funtzezkoa da ornitzailearen kontu korrontearen zenbaki osoa izatea.

60 euro baino gutxiagoko gastuak diruaren bidez ahal izango dira ordaindu, baina diru hori berreskuratzeko beharrezkoa izango da datu guztiak adierazten dituen faktura edo ticketa aurkeztea. Faktura eta albaran guztiak idazkariari eman beharko zaizkio goiko eraikinean edo

idazkariordeari behekoan, eta faktura hauetan bai BEZ bai ornitzailearen IFK adierazi beharko dira.

Abenduak 31rako txosten ekonomikoa egin behar da, beraz Abenduaren 1tik aurrera gastuak egiteko aukera eten egiten da hurrengo urtarrilera arte. Beste aldetik, urtarriletik aurrera ezin izango da aurreko urteko fakturarik ordaindu, beraz hau kontutan izan behar da erosketak eta gastuak planifikatzeko orduan.

Jose Miguel de Barandiaran BHI konpromesua du ingurugiroarekin, eta hori dela ta irakaslegoari gogoraerazten zaio neurri batzuk hartzea komenigarria dela, hots, fotokopia kopuru justua egitea eta alde bietatik posible izanez gero, folioak ez gastazea ganorarik gabe , papera reziklatzea edo elektrizitatea ahal denik eta gutxien erabiltzea argiak eta ordenadoreak itzaliz ez ditugunean behar.

59 E artikulua –ikaslegoaren jarduera osagarriak

1. **Definizioa:** gehien bat klase orduetan egiten diren jarduerak dira eta, programazioaren parte izan arren, ezaugarri desberdingarriak dituzte: barnetagiak, ikastetxeko festak, kanpaina hezitzaile bereziak, gelaz kanpoko jarduerak (bisitak, lanak...), irteerak, ikasketa bidaiak, elkartrukeak...

Ikastetxeko urteko planean onartzen dira eta, curriculumaren parte direla ta, derrigorrezkoak dira. Ikasleak jarduera hauetan parte ez hartzeko eskubidea izango du gaixotasuna edo medikuaren agindua dela ta, edo konzientzia arrazoiak direla ta. Ikaslearen familiak edo ikasleak berak adinekora bada ahal izano dio tutoreari aurkeztu eskaera bat jarduera batetik salbuestua izateko bere arrazoiak adieraziz. Jarduera hauek ez dira derrigorrezkoak izango ikasketa bidaien eta elkartrukeen kasuan.

Ikasturtean zehar urteko planean ez diren agertzen jarduerak egiteko aukera azalduko balitz, arduradunek aurkeztuko diote proiektua OOGri onatua izan dadin helburuak, ikaslego partehartzailea, prezioa eta aurreikusitako jardueren laburpen bat adieraziz. Irakasle antolatzaileak dirua jaso beharko du, jantokiko arduradunari sasoiz oharra eman eta irakasle laguntzaile nahiko diteula bermatu.

Jarduera osagarrietan parte hartzeko ikaslego osoak izango du eskubidea jokabide desegokien edo elkarbizitzaren aurkako oharra jaso dituzten ikasleak izan ezik horrela erabakitzen badu Ebaluaketa batzordeak edo ikasketaburuak. Baliteke ere irteera bat

erakunde batek bidalitako gonbidapen murriztua dela ta egitea. Kasu honetan dagokion mintegiak erabakiko ditu joango diren ikasleak aukeratzeko irizpideak, eta mintegiak berak argitaratuko du bai aukeratutako ikasleen zerrenda bai aukera egiteko erabili diren irizpideak ere.

2. Urte bukaerako edo ikasketa bidaia

- a) Ontzat emateko, ikasketa bidaian gutxienez 4. DBHko ikaslegoaren %75k hartu beharko du parte, ikastetxeak kurtso hau proposatzen duelarik ezaugarri hauetako bidai bat egiteko. Ahal den neurrian maila honetako ikaslego osoari heltzeko bezalako bidaia aukeratuko da.
- b) Bidaiaren helburua kulturala izango da eta hau OOGri aurkeztuko zaion planean argi adierzita egon beharko da.
- c) Irakasle kopuru nahikoa egon beharko da borondatez ikasleekin bidaian joateko, hobeto 4. DBHn klasea ematen duten irakasleak badira.
- d) Ikasketa bidaiak irauten duen bitartean ikastetxeak bizitza akademikoa berrantolatuko du 4. DBHn bidaian ez diren joan ikasleeengan ahal denik eta eragin gutxien izan dezan.
- e) Zuzendaritzak ez du bidaia antolatzeko erantzukisuna hartzen baina bere prestakuntza lanetan laguntasuna emango du.

3. Elkartrukeak

- a) Edozein irakaslek ahal du elkartruke bat antolatu bere ikaslegoarentzat denean eta irakalse laguntzaile kopuru nahikoa lortzen duenean.
- b) Elkartruke baten helburua beti izango da kulturalal edota linguistikoa.
- c) Ikaslego partehartzailearen kopuru gutxiena elkartrukea aurrera eramateko 10koa izango da.
- d) Edozein kasutan, partehartzeillen kopuruak ahal denik eta eragin gutxien izan beharko du ikastetxeko bizitza lektiboan, zeren eta elkartruke bat ez da inoiz izango berrantolakuntza baten arrazoia 4. DBHko bidaiarekin gertatzen den bezala.

- e) Elkartrukean parte hartzeko prest dauden ikasleen kopurua eskainitako lekuen kopurua baino handiagoa denean irakasle antolatzaileak ezarriko dituen aukera egiteko irizpideak (akademikoak edo beste motatakoak) elkartrukearen helburuak kontutan izanez.

4. Ikasketa bidaia, elkartrukeak eta nazio arteko proiektuen eskakizun amankomunak

1. Ezin izango dute parte hartu ez baten ez bestean bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak izandako ikasleek. Jokabide desegokiak behin eta berriro izatea ere izan daiteke arrazoa edozein jardura osagarrin parte hartzeko eskubidea galtzeko. Erabaki hau ikasketaburu edota ebaluaketa batzordearen eskuetan geratuko da.

IKASLEAREN ARDURA

Ikasleek erabat debekatuta dute, bidaiak irauten duen bitartean, edari alkoholduak eta estupefazianteak hartzea. Arau hori ez betetzeak institutuaren irizpide apelaezinaren arabera, partaidearen berehalako kanporatzea ekarriko du eta ez du ez aukerarik ez eskubiderik izango dirua bueltan jasotzeko. Institutuak edo erakunde laguntzaileak ezarritako arauak errespetatu eta betetzeko konpromisoa hartu behar du partaideak.

Ezin dira legeak debekatzeko dituen sustantziak kontsumitu, ezta ordena publikoa oztopatzen duen jarrerarik erakutsi ere; hori guztia espainiar eta xedeko herriaren legediak arautzen duen moduan. Araudia betetzen ez bada, edota bandalismo eta eraso-ekintzak baldin badaude, edo instalazioak eta materiala kaltetzen badira, edo orohar, beste edozein gizabidezkoa ez den ekimenen aurrean, adin txikikoa izango da arduraduna (bakarka edo taldean, era iskanbilatsuan egingo balitz) eta bere gurasoak ere bai. Horrela bada, partaidearen kanporatze zuzena eman daiteke, berak egiaztatzen badu, ekintzetan parte hartu duela. Azken kasu horretan, IKASLEAK bere gain hartuko ditu bidaiako itzultze aurreratuak sortutako gastuak, eta beste edozein ardura ere lepora dakiok horrekin zerikusia baldin badauka.

IKASLEAK berariaz adierazten du ez duela inolako sustantzia estupefazianteirik hartu. Edozein modutan, IKASLEA harrapatzen bada bidaiaren aurretik, sustantzia estupefaziante horiek kontsumitzen edo kontsumitzailea izan dela jakiten bada, institutuak bidaia bertan behera utziko dio eta ez du ez aukerarik ezta eskubiderik ere edukiko eskuratutako kantitateak berreskuratuzeko.

2. Derrigorrezkoa izango da jarduera aurrera eraman baino lehen datu giztiek egindako txosten bat OOGren onarpenerako aurkeztea.
3. Partehartzaileen satisfazio txostena edo memoria bat aurreko txostenean ezarritako helburuen betetze maila adieraziz aurkeztea ere derrigorrezkoa izango da.

5. Finantziak eta baldintzak

Parte hartzen duen ikasleak izango da jarduerak eragindako gastuak ordainduko dituen ezbadago erakundeetatik edo BIGEtik etorritako dirulaguntzaren bat. Hau bada kasua, dirulaguntza hau modu orekatuan bananduko da partehartzaile guztien artean.

Irakasle laguntzaileen kasuan, dirulaguntzak beraien gastuak ere ordainduko ditu. Honetaz kanpoko gastoren bat egonez gero, dagokion faktura edo ticketa aurkeztuta ordainduko da komenigarri ikusten bada.

Erakundeetatik inolako dirulaguntzarik ez duen bidaia bat antolatzen bada, OOGk onartutakoa eta ikasle partehartzaileen kopuru esanguratsua badu, ikasle partehartzaileek ordainduko dute gutzia, irakasle laguntzaileen dietak barne..

Ikastetxean antolatutako bidaia batentzako diru bilketa ez da inoiz kontu korrante pertsonal batera joango, ikastetxeko kontura edo BIGEkoratzen baino.

Irteera derrigorrezko jarduera bada eta klase-orduen barruan egiten bada ikastetxeak ez du dietarik ordainduko. Jarduera ez bada derrigorrezkoa (ikasketa bidaia eta elkartrukeen kasuan bezala), irakasleen partehartzea areagotzeko eta beraien egonaldia atsegina izan dadin, ikastetxeak eguneroko gastu txikiak ordaintzeko dirulaguntza bat emango du, eta gero justifikatu egin beharko da gastatutakoa bai faktura bai ticketen bidez.

Institutuaren hezkuntza jarduerak Leioatik kanpo egiten direnean eta irakasleak gutxienez bi gau etxetik kanpo igaro behar duenean, irakasle horrek beste klase egun bateko atsedena har dezake.

Bidaiak gutxienez 7 egun oso irauten duenean eta bidaia opor egunetan egiten denean, atsedeneko klase egunak bi izango dira.

Atsedeneko egun hauek bidaiaren antolaketarekin batera dagokion irakasleriaren eta zuzendaritzaren artean zehaztuko dira eta arau orokor gisa bidaiaren osteko bi astetan izango dira. Bidaia opor egunetan egiten denean, atsedeneko egunak kurtsoan zehar beste data batzuetan izan daitezke.

59 F. Hautazko ikasgaietan ikasleak taldekatzeko irizpideak DBHn

Ahal bada ikasleek aukeratutako lehenengo hautakoa emango zaie, hauxe da gure irizpide nagusia eta normalean hala gertatzen da, baina kasu batzuetan zaila suertatzen da, ikasgai batzuetarako eskaera kopuru handiegia bait dago. Hau dela eta, ikasgai batzuetarako lehentasuna adierazi duten ikasle kopurua handiegia balitz, taldea lar kopurutsua sortuz, honako irizpide hauek aplikatuko genituzke emandako ordenean:

Aurreko beste ikasturte baten eskatutako hautazko hori ikasleak ikasi baldin badu, bigarren aukeran jarri duen ikasgaia emango zaio, horrela lehenengo aldiz eskatzen dutenei aukera eskainiz.

- 1) Egindako bigarren aukera aintzakotzat hartuko dugu, horrela ikasle gehiengoak egindako lehenengo edo bigarren hautazko ikasgaia ikasi ahal izango du, kopurua ez den gainditzen bitartean.
- 2) Hau guztia egin ostean, oraindik taldea kopurutsuegia izango balitz, ikasleen ezaugarriak kontutan edukiko dira: hautazkoen arteko kidetasuna, irakasleen irizpide pedagogikoak eta baita aurreko kurtsoan hurbileko ikasgaietan ateratako kalifikazioak. DBH4. Mailako ikasleen kasuan ze batxilergo mota ikasi nahi duten ere nahitaezko irizpide erabakigarria izango da.

Beste aldetik, hautazko ikasgaiaren beraren ezaugarriak eta baldintza fisikoak mugarriak izango dira, adibidez kasu hauetan ikusten den bezala:

- FRANTSESA: lehentasuna izango dute kasu honetan aurreko ikasturte batean ikasgai hau ikusi duten ikasleek, DBHko 1. Mailan aukera hau egiten duten ikasleak salbu, jakina.
- MEDIA WORKSHOP, INFORMATIKA ETA TEKNOLOGIA: ingelesean ondo moldatu izan diren ikasleei emango zaie lehentasuna, bai eleanizatasunaren inguruko proiektu baten partaide izan direlako, bai ingeleseko irakasleek egoki ikusten dutelako.
- INFORMATIKA: kontutan hartu beharko da informatika geletan postuak 20 direla gehienez jota, ezta postu bakoitzeko bi ikasle, irakaslearekin adostu ondoren 22 ikasle onar litzatekeelarik behar handiko kasuan.
- MATEMATIKA TAILERRA: matematika ikasgaiarekin zailtasunak dituzten ikasleentzat pentsatuta dago, beraz matematika mintegiak proposatutakoei emango zaie lehentasuna.

- ARTE TAILERRA: Sormen plastikoa garatzeko tresnak.
- ERROBOTIKA: ingelesean ondo moldatu izan diren ikasleei emango zaie lehentasuna. Gainera, plazen erdia gutxienez neskak diren hautagaiei egokituko zaizkie.
- KULTURA KLASIKOA, ADVERTISING-MARKETING ETA PLASTIKA (4. Mailan hautazkoa da): Hautazko hauek ez dute baldintza berezirik eskatzen.

4. Beharrak bultzatuta edota arestian aipatutako arrazoiak direla medio baino, ez dugu joko ikasleak egindako hirugarren edo laugarren hautazkoetara, beti ere inplikatuak aurretiaz jakitun jarritz.

Baliteke proposatutako hautazko ikasgairen bat ezin izatea osatu eskaera gutxiegi egon delako: honelako kasuan hurrengo aukerak izango genituzke kontutan aurretik aipatutako guztia aplikatuz.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

60. artikulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

61. artikulua. Publikotasuna

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkoen eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarrizko gaitasunak.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.

3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

62. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.
2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek eginbehar hori betetzen dutela.
3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin hiruhilekoan behin bilduko direla ²⁰. Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.
4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxienerako aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.
5. Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio-bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:
 - o Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
 - o Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
 - o Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
 - o Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik.

63. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
2. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

64. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertzeko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, didaktika-departamentuari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango curriculum ofizialaz eta IIPz gain, didaktika-departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

65. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagokion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikuluen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.
2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, didaktika-departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Didaktika-

²⁰ Datu hori orientagarria da. Ardura horiek zuzendariaren, ikasketaburuaren edo tutoreen esku utz daitezke.

departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean erantzungo dio.

3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

66. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

67. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

1. Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasleek kalifikazioa berrikusteko tutoretza-ordua jarriko dute. Tutoretza hori ikasketaburuak onetsi duen orduan egingo da. Kalifikazioa berrikusteko orduan, irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den, bere iritziz, merezi duten nota. Ikasleen aldeko edo kontrako iritzia jasoko ditu eta, bere irizpide propioari jarraiki, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.
2. Aurreko puntuan zehaztutako tutoretza-ordura joan, kalifikazioarekin ados ez daudela adierazi eta, hala ere, aintzat hartuak izan ez diren ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute

idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

3. Ikasketaburuak dagokion didaktika-departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Didaktika-departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamatzaileren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

4. Ikasleak azken ebaluazioan «gutxi» edo «gutxiegi» kalifikazioa jaso badu, haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritzirik besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziei buruz nahikoa informazio bildu bada.
5. Didaktika-departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

68. artikulua. Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

1. Didaktika-departamentuak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio didaktika-departamentuaren erabakia.
2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.